

**FEDERIKO KRUTWIG-I  
OMENALDIA**

*Egoitza, Bilbo, 1997-XI-28*



## FEDERIKO KRUTWIG JAUNARI OHORE

*Bilbo, egoitza, 1997-XI-28*

*Jean Haritschelhar, euskaltzainburua*

Hiru aro nagusi nabari dira Euskaltzaindiaren historian. Lehena, gerla aintzinekoa, 1919-tik 1936 arte; bigarrena gerla zibilaren ondotik 1968 arte; hirugarrena Arantzazuko kongresutik honara doa. Lehenbiziko urratsetarik katakunbetara, katakunbetarik berpiztera, berpiztetik euskara baturantz, hola deit daitezke hiru aro horiek.

Katakunbetarik berpiztera (1937-1968): Azkue eta zenbait euskaltzain (Urkijo, Intzagaray, Campión, Eguzkiza) hegoaldean egon dira, bertze batzu (Altube, Echegaray, Intza, Olabide) herbestera joan irriskuen gatik, Iparraldekoak (Elissalde, Lacombe, Lhande) Frantzia daude; osoki zatikatua da Euskaltzaindia. Bizkaia eta Gipuzkoa bereziki, frankisten menpean bizi dira; euskara debekatua da, euskaldun jendea lehertua bezala.

Lauzpa bortz urte luzeren ondoan, ilunpean dagolarik Euskaltzaindia, lehenbiziko argitxo bat pizten da Azkue-k ukan dituen bisitei esker. Julio de Urkijo-ri aipatzen dizkio 1941-eko otsailaren 6-eko gutunean:

«Carísimo amigo: Tengo el placer de darte una noticia que sin duda es muy de tu agrado. Dos veces han estado en esta oficina tres miembros de la Junta de Cultura de esta Diputación: los señores Areilza, Merino Urrutia e Igartua.

Me expusieron su proyecto de dar nueva vida a esta Academia. Y últimamente me visitó el segundo para decirme que ponían a nuestra disposición cinco mil pesetas anuales; No podrías tú conseguir que tome igual acuerdo la Junta de Cultura de esa Diputación?

Ahora voy a exponeros (a Intzagaray podrías darle cuenta de esto por teléfono) el plan que me ocurre.

1.º Reunirnos cada dos meses, un mes aquí y otro ahí: exceptuando los de verano.

2.º Elegir como sucesor de Campión al P. Iraizoz, residente en Lecaroz; y a Nazario Oleaga, residente en Bilbao como sucesor de Eguzkiza.

3.º Elegir como sustituto de Altube a Zamarripa de Bermeo.

4.º Quiénes podrían ser nombrados como sustitutos de Olabide, Intza y Echegaray.

5.º Dedicarnos a terminar el Diccionario en preparación y a publicar nuestra Revista.

A los señores de que antes hablo les pregunté si podrían como antes tomar parte en nuestras reuniones los tres académicos vasco-franceses. Y me dijeron que por lo menos por ahora no.

Mucho gusto tendré, carísimo amigo Julio en recibir pronto tu contestación y vuestro parecer, para exponerle a estos señores.

Con afectuosos recuerdos a Vicenta, se repite muy vuestro en el Señor.»

Resurrección

Gutun honek adierazten duen bezala 1941-eko otsailean hiru euskaltzain gelditzen dira Hegoaldean: Azkue, Urkijo eta Intzagaray, anartean hil baitira Campión eta Eguzkiza. Azkue-k jakin nahi du bertze bien iritzia. Harentzat euskaltzainak euskaltzain dira bizi guzirako. Herbestean direnentzat aipatzen du «sustituto» hitza, erran nahi baita ordezkoa, hilentzat aldiz «sucesor» derasa, ondokoa beraz; iparraldekoak kontutan hartzen ditu galdeginez etortzen ahalko diren. Joka-molde oso garbia dauka Azkue-k.

Zenbait egunen buruan hartzen du euskaltzainburuak Bizkaiko «Junta de Cultura»-ren erabakia. Galdegiten zaio Euskaltzaindiari segi ditzan hasiak dituen lanak, segurtatzen dizkio bost mila peseta urtero eta agintzen dio har dezan euskaltzain oso gisa «Junta»-ko jaun bat: Juan Irigoyen.

Bortxaren bortxaz, hala egin zen, katakunbetarik ateratzeko ez baitzen bertze biderik, bainan kontura gaitezen hamabi euskaltzain izanki, Juan Irigoyen agertzen dela hamahirugarren. Dotzenan hamahiru, hala jokatu da Azkue, bere printzipioak gordez.

Azkueren ondoan agertzen da orduan gizon gazte bat, hogeita bi urtekoa, Federico Krutwig Sagredo jauna. Harekin, Azkue, Urkijo eta berrikitan sartu diren euskaltzainen ondoan belaualdi berri batek erakustera emaiten du maite duela euskara, nahi duela landu eta bultzatu. Beldurrik gabe jende guzien eta agintarien aurrean aldarrikatzen du euskararen alderako atxikimendua. 1942an gara, Federico Krutwig izendatzen dute euskaltzain urgazle,

Bortz urteren buruan, ikusirik Federico Krutwig-ek irakurtzen dituen txostenekin emaitza handia egiten diola Euskaltzaindiari, orduko euskaltzainek erabakitzen dute euskaltzain oso izendatzea, 1947-ko azaroaren 29-ko bilkuran:

«Bilbao'n mila bederatzieun eta berrogeitazazpi'garren urteko azila'ren ogeitabederatzian, Euskaltzaindia'ren etxean, Azkue jauna maipuru dala ta Ur-

kijo, Zamarripa ta Oleaga euskaltzainak bertan dirala, egiten dau Euskaltzaindia'k il oneri dagokon batzarra.

Asiera araudizko otoitzaz emoten dako.

Urrengo lenaurreko batzarra'ren agiria irakurri da ta ao batez onetsia izan da.

Gero Azkue jaunak irakurri ditu «Algunas curiosidades lingüísticas» deitxon lan politaren atal batzuk. Pozik entzun dira.

Federico Krutwig euskaltzain-urgazlea lankidetzat artzea erabagi da gero.

Araudizko otoitzaz amaitzen da batzarra».

Badu beraz 50 urte euskaltzain oso dela Federico Krutwig, gutartean zaharrena, ez adinez bainan Euskaltzaindian daramatzan urteen gatik. Hogeita sei urte zituen orduan, euskaltzain oso izan den gazteena dudarik gabe.

Irakurtzen direlarik Euskaltzaindiaren batzar agiriak ohartzen gara Krutwig-ek ukan duen eraginaz. Alabainan 1949-ko ekainaren 25-eko bilkuran proposatzen du Euskaltzaindiaren berriztatzea, oraitkotzea.

«Krutwig jaunak dino bere eritiz Euskaltzaindia zelanbaiten barriztu bear litakela, orain dagoan ta dabilen lez jarraitu ezker, euskerearentzat onera gitxi datorrela. Onezaz adierazoten dauz zertzelada batzuk. Aintzakotzat artu da Krutwig'en asmo ori ta urrengo batzarrerako gai onezaz txosten bat ekarri dagiala erabagi da».

Udan ez baitzuten bilkurarik egiten euskaltzainek, iraileko bilkuran, irailaren 30-ean, Federico Krutwig-ek irakurtzen du berriztatzeaz egin duen txostena:

«Urrengo Krutwig jaunak, lenaurreko batzarrean beregain utzitako txostena gertu dabela dino ta berau irakurten dau, itzez azalpen ta gaigarri batzuk ezarriaz.

Arreta aundiz entzun da bere lan goragarri ori ta bertan agertzen dituan asmoak arduraz ta zeazki azterturik, oraingo ta ao batez auxe erabagiten da:

— Aurrerantzean, Euskaltzainak amazortzi izan daitezela.

— Kopuru au betetako euskaltzaintzat urrengo jaun onek artzea: Pierre Lafitte, René Lafon, Jean Saint-Pierre, Louis Dassance ta Manuel Lekuona.

— Henri Gabel (sic) deduzko euskaltzaintzat artzea ta beste euskaltzainak bezala batzarretara deitzea.

Krutwig jaunaren txostenak dakarzan beste asmo batzuri dagokezan erabagiak, geroagorako uzten dira. Eta artean Euskaltzaindiaren esker sutsuak emoten dakoz Krutwig jaunari bere lan goragarriaren ordain».

Ez da aldakuntza ttipia hamabitik hemezortzira pasatzea, ikusiz bereziki nor sartzen den. Badakigu Krutwig-en nahia dela euskara batuaren sortzea hartuz oinarritzat Lapurtera klasikoa. Pentsa daiteke gai hori «geroagorako utzi» zutela orduko euskaltzainek. Bainan, denbora berean, hiru lapurtar sartzen dira Euskaltzaindian: Pierre Lafitte, Jean Saint-Pierre apezpikua eta Louis Dassance Euskaltzaleen Biltzarren presidenta. Horiekin sartzen da ere René Lafon euskal filologiak ukan duen lehen Katedraduna, Bordeleko unibertsitatekoa, jakintsun haundia eta mundu guzian ezagutua. Lapurteraren alde jokutzen da Krutwig eta Iparraldeko euskaltzainak sei dira Elissalde eta Aita Lhande-rekin, Lafitte-k hartzen duela Lacombe zenaren alhia. Berritze eta gaztetzear gain René Lafon-en hautatzeak adierazten du ideologia baten aldaketa: euskaltzain izaiteko behar da euskaldun izan, nahiz aitamak ez euskaldun izan eta sorturik Euskal Herritik kanpo. Garai bateko ikuspegi hertsitik jalgitzen da Euskaltzaindia Krutwig-i esker.

Lehen urratsa egina da, bigarren bat eginen da hirurhogeiko hamarkadan hemezortzitik hogeitalau-era emendatuko delarik euskaltzainen kopurua, sortuz orduan bigarren berritze eta gaztetzeara.

Kontutan har dezagun Federico Krutwig-en eragina Euskaltzaindian. 1950-eko urtarrilaren 27-ko bilkuran irakurtzen du «Euskararen idatzi hizkuntza» dertizan txostena. Bilkuraz bilkura irakurtzen ditu bertze batzu, hala nola «Comentarios sobre la ortografía del euskera» (1950/III/31), «El aspecto del verbo vasco» (1950/XII/29), eta Irigarai jaunarekin egiten ditu bi proposamen interesgarriak 1951-ko apirilaren 29 an:

«Irigarai ta Krutwig jaunen asmoz, gaia ondo-ondo ta zeatz-zeatz azterturik eta eztabaida luze ta bizian ekinik, auxe ebatzi da: 1/ Euskaltzaindiak, idazkera dala-ta orainarte artuta daukazan erabagiak oraingoz era berean bete daitezela. Baina irarkoletan izki-eredu berezirik eztagoanean D, L, R ta T gangardunen ordez DD, LL, RR ta TT izki bikoitzak erabili leitekezala. 2/ Atzerrietako gizata erri izenetan eta jakituri-itzetan jatorri idazkerea erabili daitela».

Horrez gain agintzen zaio Krutwig jaunari zenbait erantzun euskaltzain berriek beren sarrera mintzaldiak egiten dituztelarik. Erantzuten dio Seminario Rojas-i 1949-ko ekainaren 25-ean Euskaltzaindia bildua delarik Bizkaiko Ekautajauregiko Jakintza Batzordearen jaiagelan; erantzuten dio ere René Lafon jaunari Baionako euskal erakustokian 1950-eko uztailaren 15-eko bilkuran. Bi erantzun horiek Krutwig-ek publikatu ditu Egan aldizkarian 1986an. Krutwig-ek erantzuten dio ere Aita Villasante-ri 1952-ko apirileko bilkuran Bizkaiko Ekautajauregian, bainan egun honetan eta erantzun horren gatik osoki aldatuko da Federico Krutwig-en bizia. Hasarretu ziren Bizkaiko agintari batzu eta mehatxuak entzunik herbestera joan zen euskaltzain gaztea, orduan 29 urte zituela. Den gutienik mende laurden batez ibiliko da Frantzian, Belgikan, Alemanian, Italian eta azkenean Euskal Herriratzen da. Agertzen da Euskaltzain-

diaren 1978-ko abuztuaren 25-eko bilkuran Aita Villasante euskaltzainburuak egiten diola ongi-etorria. Hauxe dio agiriak:

«Ezer baino lehen Euskaltzainburuak ongi etorria erraten dio Batzarrearen izenean F. Krutwig euskaltzain jaunari, urte askotan hala beharrez urrunduari».

Hogeita sei urte luze iragan dira. Egia da Krutwig-ek aurkituko dituela Euskaltzaindian jende ezagunak hala nola Villasante, Mitxelena edo Lafitte, bainan hanitz aurpegi berri, Euskaltzaindia berritua, emendatua eta gaztetua baita euskara batuaren gaian osoki murgildua, Bergarako biltzar nagusia apailatzen ari.

Hogeita sei urte luze, bainan Euskaltzaindiak Azkuek emanikako xedea segituz, euskaltzain osoa betirako edo hil artio euskaltzain dela, utzi du Federico Krutwig-en alxia hutsik, nehor ere haren ordezeko izendatuz eta Krutwig berriz etxeratu delarik, hartu du euskaltzainen artean hutsik eta haren zain zagon alxia.

Federico Krutwig adixkidea,

Badu orain 50 urte euskaltzain oso zarela. Zuk ezagutu dituzu lehenbiziko euskaltzainetan hiru bederen: Azkue, Urkijo eta Aita Pierre Lhande, horiek oraino bizi baitziren euskaltzain oso izendatua izan zarelarik eta, hain zuzen, hiru horiek bilkuran zauden proposatu zenuelarik Euskaltzaindiaren berritzea hamabi kidetarik hemezortzira pasatuz eta hori Donostiako diputazioan 1949-ko irailaren 30-ean.

Azken hogeita sei urte hauetan, zu berriz etorri zarelarik honara, hamalau euskaltzain berri sartu dira Euskaltzaindian, erdia baino gehiago beraz, zortzi gara 1962-1977 arte horretan sartuak eta Aita Villasante bakarrik 50.eko hamarkadan. Zu zara oraiko gazteen, ez hain gazteen eta lehenbiziko euskaltzainen arteko lokarria. Alde batetik Azkue, Urkijo, Lhande eta bertzetik berrikitan sartuak, Xabier Kintana, Patxi Goenaga eta Andres Urrutia. Euskaltzaindiaren berritatzailerik lehen, euskaltzain belaunaldien arteko lokarri orai, goresmen zuri bihotz bihotzetik eta urte askotarako.





## FEDERIKO KRUTWIG-I OMENALDIA

*Euskaltzain oso: 1947-XI-29 - 1997-XI-28*

*Urrezko ezteiak*

*Bilbo, egoitza, 1997-XI-28*

*Federiko Krutwig Sagredok  
erantzun-hitzaldia*

Haritschelhar jaun eta adiskide hori!  
Euskazainkide hok!  
Euskalzaleen publiko maithe hori!

Hemen bildu gaitu Euskalzaindiak, hau da  
Euskal hizkuntzaren Akadēmiak, eta ni hospatzeko nahiaz;  
bainan erantzuera izkiriatu behar nuenean ‘pentsatu behar ukhan dut’ hoshapakizun hau, nik egin behar neraukeela, neure aurrean Akademi huntan izan direnei;

zeinen ganik’ nik neure bizitzaren bidea ikasi egin bait nuen.

Egiatan ‘nik neuk’ ber heiei egin behar neraukeen; eta hemen mintzatzen hasi nintzanean’ hauxe bururatu egin behar bait dut.

Hortakotz nik neuk ere’ Graikiako poēta handiek bezala, Jainkosari eginikako invokatione batetaz hasiko naiz, bainan hitz batzu aldatuaz gero

Homerok bere *Iliada* hasten denean Jainkosaren laguntza eskatzen du: Μήνιν ἄειδε θεά Πηληϊάδεω Ἀχιλῆος erraiten duela’ nik erraiten nuke Μνήμην ἄειδε θεά. Βασκωνίας Ἀκαδημίας τε καὶ ταυτῆς ἀνθρώπων.

Ni hemen sartu nintzanean, nehoiz ere ez nuen pentsatu commemoratio-neetan; hortakotz’ erdi-gezur eta erdi egia-antzeko egokera batetan nago Ez lirudike egia denik; berhain egia hutsa da.

Ni dudarik gabe aldatu naiz, eta aldakuntza huntan nire aburuak eta usteak ere, aldatu dira; eta ber gauza erran nezake Euskal Akadēmiari buruz; zeren eta Akadēmia batetan ‘persona’ concretuak subjectuak bait dira, eta corporationea bat’ ez bait da, persona hoiengainean hegaz egiten duen mystēriozko amets bat baizik

Orduan nirekin, hemen Azkue eta Urkijok zegozkeen, bai eta Etxaide zaharra eta Irigarai, eta Zamarripa ere bai

Izen hauk orain gure orhoitzapenean bait ba dagozkiket nahiz eta heien gibelean ethorri zaikegun bertze izenak gutzat oraingoak diratezken.

Orduan Euskazaindian askotan mintzo ginen, gure inguruetan zegoen bertze bi Akadêmiei buruz, hau bait da: Frantziakoaz ta Españako Hizkuntza Akadêmiei buruz, zeinen lan egiteko moduak hoin different bait ziren Frantziako Akadêmiak, hitzak' hizkuntza; intelektualeen praktikê egunorokoan zirenez registratzen zituen; hau da mintzoaren phainomenoak registratzen ziren, aitzitik Hispaniakoan, españolen izpiritu intolleranteaz eta militarraz kasernen gogoaz pentsatzen zen; eta Akadêmian traktatzen ziren quaestioneak "ordeno y mando" tonoz' erabakitzen zirela zer zen justu eta zer ez zen finkatzekotz. Eta behar izan ba ledi, geroz hau imosatu behar lizatekela pentsatzen zen, bortxaz ere bai,

Geuk guztiok, orduan iadanik europatarragoak izan behar genuela uste genuen, eta Euskalzain baten aburua, bertze guztienak in principioan bezain egiazko izan zitekela genekien.

Bainan azken finean ba zegoen bertze possibilitate bat ezen Heraklitok erraiten zuenez: εἷς ἔμοι μύριοι ἔσν ἄριστος ἦ, persona baten aburua baldin eta egiazkoa ba da, "nitzat importantagoa da, hamar mila persona arruntena baino".. Eta huntara Philologian bethi ere, tollerant izan behar genukela ikasi nuen. Eta bethi berze euskalzale guztien aburuak eta ideak respetatu ta consideratu behar genituzkela ikasi nuen.

Graikoez ba zekiten ezen zer den egia ta zer ez den, votoen bidez "démokratikoki" ezin determina daitekela. Démokratiaren ekhinzaren alhorra politikoa baizik ez bait da, ezen jakintzan hamar, ehun nahiz mila zeroek, hamar mila personak mila bider erranik, ez dute gezurrezko faktu bat egiago bilharazten.

Gizonek gehienetan' eruditua bilhaka ditezke, egunoroko lanaren bidez; bainan intelligent izaita bertze gauza bait da. Eruditua handi batek ia gauza guztiak dakitza liburuetan dathortzan bezala, eskolan edo Unibersitatean ikasirik, halatan ere' statuaren eskoletan eta Unibersitateetan soilik irakasten da, statu-manudunek nahi dutena, herriaren izpirituan, askotan entzunaz geroz gizon normalek, bai eta erudituek ere, ezinbertzez politiko manudunek nahi duten modura sinhits lezatenaz.

Berhain' ilhunpeetako Erdi-Aroko urtheen ostean, Renaissance spirituan Graikia gutartean berphizten zenean, egon dira Errege, edo ta noble intelligent batzu, zeinek ba zekiten, ezen herriaren "tontotasuna" beharrezkoa zen-arren' regimen politiko bat bizirik urthe askotan ezin iraun-araz zitekela.

Huntaz gainera jakin ere ba zekiten ezen, soilik populuak enthelegatzen zuenaz ere munduko ordina ezinbertzez hilen zela.

Orduan Errege eta noble intelligent haukiek' pentsatu ukhan zuten ezen, bakharrik herriaren eta herrikkaren uste "dêmokratikoez" munduko bizi egiazkoa ezin iarraik zitekela, = baldin eta heien gainean egiazko gizon intelektualek eta intelligentek asma zezaketen egia (biziduna eta) goragoa ez ba lego, eta egia' intelligentenek zalantzan gauza guztiak ezarri-arren. Hauk' egiazko bizia zirelaketz, eta hunelako egia gorenen gabe egiazko orden anthrôpinoaren eskubideak ez bait dagoz.

Halakotz' hunelako gizon intelligentenez eratu zituzten Akadêmiak, zeinetan vota ez bait dezake nehork, zeren eta egia sorthu berriak noiz, nola eta non de facto egiazkoak izanen direnz, nehork ere ez bait daki faktum hauk praktikêan konstatatu baino lehen, faktum haukiek ethorkizuna eratzen ohi bait dute.

Berhain gizartearen puntan edo akran, dagozen gizon intelligenten quantitatea hoin ttipia izaiten ohi da, non eta populatione osoa considera ba dezagu, minoritate haur' 1/100.000 baino handiagoa normalki ez den.

Hemen gerthatzen da zuhatzeetan bezala, zuhatze baten massa ia guztia' zura da, bainan zomoaren (saparen) gabe, zuhatzea hiltzen da. Huntara gizarte anthrôpinoan ere minoritatea' osotoro egiazko bizia da.

Hemen ez da sinhisten, hemen khide guztiek, batbederak bere aburua du, eta deklaritzen. Hemen maiortatearen eskubide dêmokratikorik ez dago' faktuak nolakoa diren determinatzekotz.

Beraz bi gauza osotoro different dira Akadêmiak eta heien aurkhaz-aurk dagozken Unibersitateak. Gizon intelligent baten aburua' hamar mila gizon mediokreen aburuak baino importantago da, bai eta egiazkoa ere.

Hemen dagoke herri ttipien eta minoritate nationaleen zori-tzarra, eta hemendik dathorte bere spîrituzko eskastasunaren ithurria, zeren eta beharrezkoa den gizon intellectualen quantitate minimum bat biltzen ez bait dezakete, hortakotz ere' **ezin era** lezakete gizon intelligenten talde minimum bat; zeren eta heien herrien giza-semeez bakharrik ezina delaketz; hau delata frantsesek erraiten dutenez "*minorité. minorisé = minable*" bilhakatzen ohi dira.

Bainan huni aitzi, Euskalherriaren problêman hala ere bethi ukhan ditugu euskara maithe ukhan duten kanpotarrak, zeinek gure hizkuntzaren historiari buruz, bai eta euskararen problêmei buruz ere' theorizatu bait dute, eta lan saonak iratzi.

Ait litez huntara gauzak iraun eta engoik ere iarraik.